




ikastolak



ARANGOTI IKASTOLA IRUNBERRI



Irunberrin eskaini genuen emanaldiaren momentuetako bat.

Bizitza jirabiran

NATURAKO ZIKLO EZBERDINEN INGURUKO EMANLDI BEREZI BAT ESKAINI GENUEN IRUNBERRIKO GIZARTE ETXEAN

📷 Testua eta argazkia Arangoti Ikastola

Iazko ikasturtean 3. zikloko ikasleak Ikastolen Elkarte EKI material berriarekin hasi ginen lanean Arangoti Ikastolan. Ordurarte erabilitako liburuak alde batera utzi eta liburu berriak izango genituela esan ziguten irakasleek. Baina ez ohiko paperezko liburuak, liburu digitalak baizik! Hura poza eta emozioa gure ordenagailuetan liburuarekin lanean hasi ginenean!

Baina liburuak euskarri digitalean izateaz gain, EKI lanerako modu berriak ekarri zizkigun eta hiruhi-

leko bakoitzean proiektu bat egiteko aukera eman digu. Diziplinartekoa deitzen diogu eta oraingoan emanaldi bat izan da. Guk, 5. eta 6. mailako ikasleok, herriko Gizarte Etxean antolatu dugun emanaldia, hain zuzen.

Bizitza jirabiran izenburupean, hiru hilabete honetan zehar, bizitzaren ibilbidean, eraldaketan dugun eraginaz aritu gara. Ziklo ezberdinak etengabe ematen direla ikusi dugu, ingurugiroaren eraldaketan parte aktibo garela, natura mugimenduan

dagoela, gu ere naturarekin bat aldatzen goazela, eta honekin batera, belaunaldiko transmisioaz hausnartu dugu.

Eta guzti honi benetako zentzu bat emateko gure herriko helduenentzako emanaldi bat prestatu genuen. Guk ikasitakoa haiekin partekatzeko.

Irunberrin bi jubilatuei elkarte dau eta gure proposamenaren berri emateko lehenbizi ikastolara gonbidatu genituen arduradunak: gure ideia aurkeztu, haien taldeetako ezaugarriak buruz galdetu, haien iri-

tzia jaso, datak adostu, jubilatuei jardueraren berri nola eman pentsatu...

Honen ondoren, gure emanaldia prestatzeko ekin genion. Lau talde egin eta lau lan ezberdin antolatu genituen: inguruko gaiari lorturik solstizioen inguruko informazioa, euskararen aldiz, negu garaiko ospakizunak, gaztelerako arlotik hainbat olerki eta azkenik, ingelesez, abestiak.

Emanaldirako aurkezpen txukuna prestatzeko gain gure gonbidatuekin tailer bat egitea erabaki genuen eta horretarako hostoekin artelan bat osatzea proposatu genien.

Eta eguna heldu zen. Urduritasuna, emozioa eta gogoak. Irunberriko Gizarte Etxean genuen hitzordua eta hantxe eskaini genuen gure lana. Ikuslegoa pozik eta gu ere bai. Emanaldi xume eta polita izan zen. Ikasitakoa gure helduei transmititua. Bizitza jirabiran!

Emanaldiaren ondoren balorazioa egiteko tarte hartu genuen eta baita gure iritzia eta sentsazioak biltzeko ere. ●

**“Asko disfrutatu dut
aiton-amonak
pasatzen zutela
ikusterakoan”**

MIKEL DIAZ LARRAÑAGA
Ikaslea

**“Proiektu honetatik
gehien gustatu zaidana
taldean lan egitea izan
da”**

HAIZEA ALCALDE PERURENA
Ikaslea

**“Oso barregarria izan
zen aiton-amonak
ingelesez abesten
ikustea”**

MAIDER ALZUETA SANCET
Ikaslea

**“Entseguetan ez zen
guztiz ongi ateratzen
baina egunean bertan
primeran atera zen”**

ORHI BURG IRIARTE
Ikaslea

**“Oso zaila da jendearen
aurrean hitz egitea baina
oso ongi egin genuela
uste dut”**

IDOYA AMUNARRIZ ARIAS
Ikaslea

**“Emanaldiaren hasieran
oso lotsatuta nengoen
baina gero oso ongi
pasa nuen”**

MADDI VALENCIA ONGAY
Ikaslea

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zein da liburuan agertzen den protagonistaren izena?
 2. Zenbat urte ditu Garazik?
 3. Nor da Garazi eta bere lagunen artean lasterka hobekien egiten duen pertsonaia?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ TXARTELA: Jon Ardaiz (Paz de Ziganda Ikastola) eta Irati Legarre (Zangozako Ikastola).

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzeko dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoru dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.